

herrerak-bidebieta

Haurrentzat musika eta eskulanak

herrerako haurrek marrazki, margo, buztin eta zumea lantzeko ikastaroak egin ahal izango dituzte ikasturte honetan zehar. Ikasturte hauek urriaren 1ean hasiko dira baina izena emateko epea irekia dago jadanik. Klaseak larunbatero izango dira goizeko hamarretatik ordubaterara eta bertan edozein haurrek har dezake parte.

Ikastaro hauen ardura Amaia Biurrunen esku dago. Tolosan jaiotako neska gazte hau Arte Ederretan lizentziatua da eta duela zortzi urte hasi zen haurrekin lanean.

Urte hauetan zehar Amaiak bere lana Tolosako Kultur Etxea eta Herrera artean banatu du. Ikastaro honetan 5-8 urte bitarteko haurrek parte hartzen dute batipat eta larunbata goizeko hiru ordu horietan Amaiak eskulan arloak haurrengan duen garrantzia



sakondu nahi du.

Musika Tailerra lehen aldiz

Bestalde, aurtengoan lehen aldiz, Herrerako Auzotegian "Musika Tailerra" antolatu da Laura Diaz de Prado herrerratarren eskutik. Tailer honen helburu nagusia 3-8 urte bitarteko haurrak musika munduarekin harremanetan jartzea da.

Honetaz gain haurraren gaitasun naturalak garatu nahi dira musikaren bitartez.

Lau izango dira ikastaro honek bere egitarauan aztertuko dituen gaiak: abesti herrikoiak, erritmoa garatzeko joku bereziak, musika estilo ezberdinak entzutea eta azkenik, ipuin eta marrazkiak, musikarekin erlazionatzea.

Ikastaroa urriaren lehen astean hasiko da eta oraindik finkatu gabe dago astean bi edo lau orduz izango den.


Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izan ezker 390376 telefonora dei dezakezue.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Sportingek denboraldia hasi du

Herrerako Sporting Futbol Elkarteak hasi du bere aurtengo denboraldia.

Lehenengo urtean Sportingek, elkarteak orain arte lortutako klasifikazio hoberenetakoa lortu zuen. Espero dugu aurtengoa ere denboraldi ona izatea eta aurrekontu zein prebisiio ekonomikoak behar bezala betetzea.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

kutxa fundazioa

fundación kutxa

intxaurrondo

Auzoa handituz doa

dagoeneko Intxaurrondo ez da garai bateko auzo txiki hura. Hego eta Ipar Intxaurrondoko zona berria zabalduz doa, bereziki eraikitzen ari diren etxebizitza, parke eta beste eraikuntzen ondorioz.

Iparreko aldean, amaitu dira lorategien planak eta horrekin, poligonoa bukatutzat eman da. 25.000 metro karratu hauetan, lanen zuzendaritza Luis Alvarez Velez eta Andres Iturraldek eraman dute.

Hego eta Ipar aldeetan, Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 1.706 etxebizitza egitea erabaki du eta lanak 1995. urte amaierarako bukatzea espero da. Egindako inbertsioak 20.000 milioira iritsiko dira.

Jubilatuentzat etxebizitzak

Jubilatuek ere izango dute beren tartea proiektu erraldoi honetan. Orotara 309 etxebizitza eraikiko dira Zarategi pasealekua-aren bukaeran. Honetarako, 1.000 milioi gastatuko ditu Eusko Jaurlaritzak.

Bi fasetan egingo dira lanak. Lehenean, hasita dagoena, 120 etxebizitza eraikiko dira. Egitura



Urte gutxitan Intxaurrondo Donostiako auzorik handienetakoa bihurtu da.

apartahotel erakoa izango da eta horren laurden bat elbarrituentzat egokituko da. Beheko solairuan, bainu gerontologikoak emateko, errehabilitaziorako eta zerbitzu geriatrikoa kokatzeko lekua egokituko da. Ondo pasatze-

ko, diskoteka, telebista duten egongelak eta dendak izango dituzte eskura.


Bigarren fasean, 189 etxebizitza eraikiko dira; lehen fasean egindako eraikuntza eta hau komunikatuta egongo dira. Ekipamendu ugari izango di-

tu: igerilekua, gimnasioa, zinema, lorategiak, ilea-paindegia eta kafetegia. Azken hauetatik, edozein auzokidek gozatu ahal izango du.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

PLAZA BAT ESKULTURA BAT

Gure auzoan arrunta bilakatu da egiten diren parke edo rotonda berrietan eskultore famatuaren lanak jartzea. Hego Intxaurrondoko parke berrian eskultura bat jarri berri dute. Bere izenburua «*Formas en crecimiento*» da eta Koldo Jauregi izan da egilea. Lanak hirurogei tonako pisua dauka eta artista bere azken ikutuak ematen ari zaio bere arte lanari. Jauregi eta bere lankideek, bederatzi hilabete pasa dituzte eskultura egiten.



Chetas

TAILA HANDIETAKO MODA

Kolon Pasealekua, 23 Tfnoa.: 29 27 20

Maiko Sport

Segundo Izpizua, 20

Tfnoa: 28 53 30

29 35 45.

DONOSTIA